

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakaria Kaiku esne-kooperatibari buruzko liburu baten aurkezpenera joan da

Enpresa horren Iruñeko instalazioetan nazioartean ospea duten jogurtak eta esneki probiotikoak ekoizten dira

Miércoles, 06 de abril de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakariak Kaiku kooperatibaren esneki ekoizpenerako planta bisitatu du gaur goizean Iruñeko Agustinos poligonoan. Bertan Miguel Rey idatzitako *Kaiku desde 1953, un proyecto de futuro* oroitzapenezko liburua aurkeztu dute.

Aurkezpen horretara entitateko abeltzain kooperatibisten eta zuzendarien taldea joan da, eta Sanz Lehendakariak alboan izan ditu Joxe Urrestarazu kooperatibako lehendakaria eta Patxi Mendiburu kontseilu errektorearen Nafarroako ordezkaria.

Kaiku kooperatiba Nafarroako (Copeleche eta Inlena) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (Gurelesa eta Beyena) esnearen merkaturatze-kooperatiben bat-egitearen emaitza da. Kooperatibok 1953an sortu ziren esnearen sektorea antolatzeko, helburu bikoitzarekin: batetik, esnearen osasun-kalitatea bermatzea eta, bestetik, esnea biztanlegune handietara hornitzea.

2004an

[Kaiku Corporación Alimentaria](#) sortu zen. Izen bereko kooperatiba, partaidetzaren % 13,40rekin, eta hamar sozietate teknologiko, finantzario eta garapenekoak biltzen ditu. Korporazioak 66,1 milioi



Kaiku Kooperatibaren oroitzapenezko liburuaren aurkezpena. Ezkerretik eskuinera: Miguel Rey, Joxe Urrestarazu, Sanz Lehendakaria eta Patxi Mendiburu.



Kaiku Kooperatibaren oroitzapenezko liburuaren aurkezpena. Bertaratu direnak.

euroko kapitala du, eta plantak ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Mexikon, Txilen, Argentinan eta Frantziako Tolosan; 255 milioi euro fakturatu ditu (2009an), hurrengo hauetatik datozenak: esnea ontziratuta eta merkaturatzea (%54) eta jogurtak eta probiotikoak (%42); beste %4 esnekiei eta gaztari dagokie.

Lácteos de Navarra SL korporazioaren enpresetako bat da, Agustinos poligonoko plantaren titularra da, eta bertan urtean 75.000 tona jogurt, probiotiko eta produktu hartzitu ekoizten ditu. Espezialitate horietan Kaiku aitzindaria eta nazioarteko erreferentia izan da. Enpresak 150 enplegu zuzen eta 50 zeharkako sortzen ditu, esnea Nafarroako ehun bat abeltzainei erosten die (hau da, Foru Komunitatean ekoiztutako esnearen %20), eta 2009an 52 milioi euro fakturatu zituen.

1997tik, Lácteos de Navarra enpresak Iruñeko fabrikari 11.625.576 euro inbertitu ditu. Kopuru horretatik 6 milioi azken 4 urteetan inbertitu dira, eta Nafarroako Gobernuak 2.039.162,35 euroko laguntza eman dio. Horrez gain, 800.000 eurotik gorako laguntza-konpromisoa dago, 8 milioi euro inguruko aurreikusitako inbertsiorako. Laguntza horiek eraginkorrak izango dira iragarritako inbertsioa egiten denean.